



Comisión
Europea

EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOA



EDE
FUNDAZIOA





Europar, gazte asko prest dago boluntario gisa lan egiteko bidezko helburu baten alde, haien laguntza garrantzitsua izan daitekeen proiektuetan, eta horrez gain, hain zorioneko ez direnekin elkartasuna erakusteko. Ekimen horiek guztiak bideratzeko, Europako Elkartasun Kidegoa (EEK) eratu da.

ZER DA EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOIA?

Europako Elkartasun Kidegoak bi eta hamabi hilabete arteko boluntariotza-postuak eskaintzen ditu, Europa osoko komunitateen artean elkartasuna sustatzeko.

Europako Elkartasun Kidegoaren helburua da elkartasun-jarduera ugarietan ahalik eta gazte gehienek parte hartzea boluntariotza bidez, Europar Batasun osoan egoera estimulatzailerik aurre eginez, betiere.

ZER HELBURU DAUKA?

Gazteak askotariko ekintza eta proiektuetan sartu ahal izango dira, esaterako: hezkuntzan, osasun-arretan, gizarteratzean eta elikagaien horniduran laguntzen, baita elikagaiak ez diren gaien horniduran ere, babeslekuak eraikitzen, instalazioak eraikitzen, berritzen eta kudeatzen, etorkinen eta errefuxiatuen harrera eta gizarteratzean, ingurumena zaintzen eta hondamendi naturalak prebenitzen.

NOLA PARTE HAR DEZAKET ETA ZER JASO DEZAKET TRUKEAN?

Programan hamazazpi eta hogeita hamar urte arteko gazteek eman dezakete izena. Elkartasuneko proiektu batean parte hartzeko gutxieneko adina hemezortzikoa da.

Izena emateko unean zure datu personal nagusiak eskatuko zaizkizu. Gerorago informazio gehiago eskatuko zaizu. Izena ematean, zer herrialdetara joan nahiko zenukeen zehaztu ahal izango duzu, boluntariotzako esperientzia nahi duzun, zer jarduerara mota interesatzen zaizun, eta zer esperientzia eta gaitasun dituzun. Erregistro-sistema Europar Batasuneko hogeita lau hizkuntza ofizialetan dago eskuragarri.

Europako Elkartasun Kidegoak gainerakoei laguntzeko aukera eskaintzeaz gain, prestakuntza asotzeko, zure gaitasunak garatzeko eta esperientziak biltzeko aukera ere eskaintzen du.



Boluntariotzako postuetan parte hartuko dutenek ostatu-, mantenu-, bidaia eta aseguru-gastuak estalita izango dituzte eta helmugako herrialdearen arabera gastu pertsonaletarako diru-kopuru bat jasoko dute.

Parte-hartzaile guztiak ziurtagiri bat jasoko dute; bertan, Europako Elkartasun Kidegoan egindako jarduerak zehaztuko dira.

NON JASO DEZAKET INFORMAZIOA ETA IZENA EMAN?

Informazio orokorra: https://youth.europa.eu/solidarity_es



EUROPE DIRECT
Bizkaia

@EuropeDirectBiz
europedirect@edefundazioa.org
www.europedirectbizkaia.org



BizkaiaGara
Egin ezan · Tiempo de acción

@BizkaiaGara
europa@bizkaiaagara.eu
www.bizkaiaagara.eu/eu